


GARDENTASUNERANZKO BIDE ORRIA

Udal gardenago bat eraikitzeko
estrategia eta tresnak



EUDEL

***Gardentasuneranzko Bide-orria Gardentasunaren Aldeko
Euskadiko Udalen Sareak garatutako tresna bat da, Udalak
Eraberritzeko Agenden Programaren baitan garatua***

“Gardentasuneranzko Bide-orria: Udal gardenago bat eraikitzeke estrategia eta tresnak”

Koordinatzailea: **EUDEL** / Edukiak eta idazkaritza teknikoa: **S&F**

AURKIBIDEA

1.	Udalak gardenak izateko Bide-orria: helburuak	4
2.	Udalak eta Gardentasuna: zertaz ari gara?	6
3.	“Udalak gardenagoak izateko Bide-orria” garatzen	14
ERANSKINAK: UDAL GARDENAGOAK ERAIKITZEKO TRESNAK		32
A.1.	Gardentasunaren arloan, udalek barne hausnarketa bat egiteko galdetegia	33
A.2.	Gardentasunaren arloan, herritarren beharrianak eta lehentasunak antzemateko galdetegia udalentzat	43
A.3.	Ikuspuntu politikotik Gardentasunaren zer alde diren garrantzitsuenak eta Ikuspuntu teknikitik gardentasuna ezartzeko zer zailtasun dauden inkestetan jasotako emaitzen gaineko txostena	47
A.4.	Gomendioak informazio ekonomiko-finantzarioa aurkezteko herritarrek ulertzeko moduan	56

1.

**Udalak gardenak
izateko
Bide-orriaren
helburuak**

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak, hasierako une honetan, tresna bi garatu ditu, helburu argi batekin: Udalei orientabide moduan baliotea jakiteko nola hobetu Gardentasunaren arloan.

Dokumentu honetan, **“Gardentasunerazko Bide-orria: Udal gardenago bat eraikitzeke estrategia eta tresnak”** aurkezten dugu, eta bertan udal gardenagoak lortzeko zer-nolako estrategia garatu behar den zehazten da, eta estrategia hori gauzatzeko tresna egokiak:

- Galdetegi-eredu bat herritarrei galdetzeko zer beharrian eta zer lehentasun dituzten udalak gardenak izateari dagokionez.
- Gardentasunaren arloan, autoebaluazioa egiteko eredu bat. Autoebaluazioa egiteko eredu horrek laguntza bat izan behar du udalarentzat non eta zer egoeratan dagoen hausnartzeko, eta erabakitzeko nora eta zer egoeratar heldu nahi duen.
- Oharpen bat gogorarazteko gardentasuna ezartzea lehenestea zein garrantzitsua den eta, aldi berean, zein erraza den Gardentasuna ezartzea hari dagokion arlo-etako bakoitzean. Oharpen hori Sarearen parte diren udaletan jasotako iritzietan oinarrituta garatu da.
- Gomendio sorta bat jakiteko nola aurkeztu behar duten informazio ekonomiko-finantzarioa herritarrentzat ulargarria izan dadin.

Halaber, **“Udala gardenago izateko Praktika Onak”** izeneko dokumentua landu da. Dokumentu horren helburua honako hau da: Euskal Herriko eta Estatuko beste udal-erakunde batzuek Gardentasunaren arloan izandako jarduera zuzen eta egoki zehatzak eta errealak eskaintzea udalei.

2.

**Udalak eta
Gardentasuna:
zertaz ari gara?**

2.1. GARDENTASUNAREN BALIOA UDAL ADMINISTRAZIOENTZAT

EUDELen uste dugunez, Udal politikan jarduten direnentzat premiazkoa eta lehenetsi beharrekoa da Gobernu Ona bultzatzea eta baliabide publikoak **garden kudeatzea**. Uste dugu herritarren zerbitzuan egotea dela politikaren eta Administrazio Publikoaren benetako zeregina, eta herritarrek izan behar dutela kudeaketaren ardatz.

Helburu hori gogoan, Euskadiko Udalok urteak eta urteak daramatzagu lanean udalak kudeatzeko modua eraberritzeko, efizientzia handiagoakoak eta eraginkorragoak izateko, Udala Eraberritzeko Agenda proiektuaren eta beste antzeko batzuen bidez.

Udalak eraberritzeko bidean, ezinbestean arlorik garrantzitsuenetakoa den bat azpimarratu nahi du orain EUDELe: Gardentasuna.

Gardentasuna, Gobernu Onaren zutabeetako bat den neurrian, **herritarren aldarria izateaz gain, aukera ezin hobea da** Euskadiko udalentzat, besteak beste konfiantza, legitimitate eta efizientzia kontuetan. Gainera, erraztu egiten du udal politiken berri ematea herritarrei.

Arestian esandako guztia aintzat hartuta, EUDELen, **GARDENTASUNA estrategia ildo berri bat da**, Euskadiko Udal Erakundeen alde egiten ditugun ekintza eta lanak diseinatzean gogoan duguna; izan ere, haiek dira gure herrietako gobernuak herritarrentzat irisgarriago izatea bultzatu behar dutenak eta,aldi berean, gobernu horiek herritarrei irekitzeko ardura dutenak.

Eraberritzearen gaineko **Diagnostikoa** 2012an bukatu genuen, eta bertan Gardentasunaren arloko arazoak aipatzen ziren. Diagnosi hori egiten Euskadiko 203 udalek hartu zuen parte. Gainera, udalen arteko komunikazio-bideak zabaldu ziren, haien proiektuetarako ideiak eta “Know-how”a lortzea errazteko asmotan.

Halaber, Gardentasunean prestakuntza lortzeko **berariazko formazio-lerro bat** bultzatu genuen. Horren adibide dira, “Gardentasuna Udal Gobernuetan” Jardunaldiak –lehenengoak gure erkidegoan–, non Euskadiko hiru lurralde historikoetako 50 udalek hartu zuen parte.

2013. urte honetan, gardentasunaren alorrean aitzindari diren udal pilotu batzuk **Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarea** sortu izanak marko bat eman digu estrategia bateratu bat diseinatzeko guztien komuneiko beharrianetan eta interesetan oinarritutakoa, gure udalak modernizatzeko balikokodiguna, eta berriztatzaileak eta gardenagoak izatea ahalbidetuko duena.

Euskadi abantailan dago Estatuko beste lurralde batzuekin alderatuta; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 3 udal daude lehenengo 10 udalen artean eta beste bost lehenengo 50en rankinean, *Nazioarteko Gardentasuna* deituriko erakundeak egindako “Udalen Gardentasunaren gaineko txostena, 2012”ren arabera.

Dena den, Euskadiko udal guztiek ez dute lortu balorazio goren hori. Lortu dutenek ere **badute zer hobetu** beren jarduna gardenago izateko. Horregatik, bada, erabaki dugu sare bat sortzea eta bultzatzea, udal txikienei laguntzeko asmotan hain zuzen, eta gizarteari erakusteko Euskadiko udalek hartutako konpromisoa, egindako aurrerapena eta etengabe berriztatzeko egindako jarduerak eta ekintzak. Azken finean, jadanik eginda dagoen lanaren balioa nabarmentzeko, eta udalen artean ezagutzak trukatzeko bultzatzeko.

Gardentasuneranzko Bide-orri hau Sareko partaideen elkarren arteko lanaren emaitza da eta Euskadiko udalen orientabide izan nahi du, baina baita beste mota bateko instituzio eta erakundeena ere. Betiere, aurrera egiteko bide eta erronka hone-tan, datozen urteetan aurre egin beharreko erronka nagusienetako delako. Baina, batez ere, demokrazian sakontzeko eta herritarren zerbitzuan hobetzeko Gardentasunak eskaintzen digun aukera aprobetxatzeko.

2.2. UDALAK ETA GARDENTASUNA: ZERTAZ ARI GARA?

Gardentasuna zutabe eta oinarri bat da gobernu onerako. Gardentasuna ez da, berez, gobernu ona, abiapuntu bat baizik, eta ondo gobernatzeko ezinbesteko eta funtsezko osagaia.

Gardentasuna da lehen urratsa; izan ere, kudeaketa politikoa eta teknikoa agerian jartzea ahalbidetzen du, eta aurrera egitea datu publikoak denon eskura jartzeko bidean (*Open Data*).

Gobernu Irekia, helburua

Gobernatzeko modu berri bat, eta agintarien eta haien ardurapeko herritarren arteko harremanak bideratzeko modu berri bat.

■ **ZER BEHAR DUGU GARDENTASUNA LORTZEKO?**

— Zeharkako planteamendu bat, sistemikoa eta eragina izango duena antolamenduan. Alderdi juridikoak, antolamenduzkoak eta aldaketa kudeatzekoak barne hartzen ditu.

— Udalaren sakoneko arazo guztiak birplanteatzea: aldaketa kulturalak, prozesuen aldaketak eta antolatze modu eta ereduenak.

■ **ZERGATIK DA HAIN BEHARREZKOA?**

Gardentasunik gabe...

— ezin da lortu herritarren benetako parte hartzerik. Gardentasunik gabe, parte hartzea manipulazio bihurtzen da. Herritarrek ez badute beren iritzia zentzuz emateko behar beste informaziorik, euren erantzunak baldintzatuta egongo dira eta ez dute baliorik izango, ez direlako gaiaren benetako errealitatearen jakitun izango eta baka-rik izango dutelako zati baten gaineko informazioa.

Gobernu Irekiaren hiru printzipioak

■ **GARDENTASUNA.** Informazio publikoa herritarren jabegokoa denez, herritarrek informazio hori erraz eta debalde atzitzeko modua izan behar dute. Herritarrek Gobernuaren jarduna ebaluatze modua izan dezaten eskaini behar da informazio hori.

■ **PARTE HARTZEA.** Herritar arduratsuek aukera izan behar dute, beren ezagutzetatik abiatuta, ekarpenak egiteko udalaren politika publikoei, eta beren iritzia azaltzeko politika horiei buruz.

➤ **Gizarte osoaren esperientzia eta ezagutza guztion onerako.**

Ezinbestekoa da herritarrek sentsibilizatzea udalaren bizitzako parte izan daitezen, eta haien erantzukizuna eta ardurak onartu ditzaten

➤ **Ardura eta erantzukizuna guztiona izateak indartu egiten du giza-kohesioa udalean, baita udal gobernuaren legitimitate demokratikoa ere.**

■ **ARLO PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA.** Beste administrazio batzuekin, gizarte zibileko eragileekin zein norbanakoekin lankidetzan aritzeak Udal Gobernuaren eraginkortasuna eta efizientzia mazimizatzea ahalbidetzen du.

■ NOLAKOA DA udal garden bat?

Ikuspegi bateratua du, batez ere, zer-nolako udala izan nahi duen, arduradun politikoei bultzatua eta arduradun teknikoek partekatua. Guri dagokigunez, udal irekia, hurbilekoa eta etikoa:

- Kalitateko administrazio bat du, eta hurbilekoa herritarrentzat.
- Herritarren eskura jartzen du udalaren informazio soziala, politikoa eta ekonomikoa.
- Informazio bidezkoa eta sinesgarria ematen die herritarrei, eta harekin herritarrek udal gobernuaren jarduna ebaluatzea izango dute, eta ondo oinarritutako iritzia sortzea. Herritarren ulermen-gaitasuna aintzat hartu gabe, informazioa bere gordinean aurkezteak urratu egiten du herritarren eskubidea informazio garden eta ulergarria izateko.

Esate baterako: *sarritan argitaratzen dira datu ekonomiko asko eta asko inolako azalpen eta argibiderik gabe, eta datuok, horrela emanda, ez dira batere erabilgarriak.*

- Herritarrek gobernu-jarduna kontrolatzea ahalbidetzen du; eta, horretarako, Administrazioak kontuak ematea sustatzen du, bere ekintzen eta asmoen gaineko informazioa eskainita du eta bere kaxa eskainitako datuetatik abiatuta aberastasun ekonomikoa sortzeko aukera ematen du.

■ ZERTARAKO BALIO DU udal bat garden izateak?

- **Kudeaketa publikoa** eta beraren eraginkortasuna eta efizientzia **hobetzea bultzatzeko**. Zaintzeak hobetu egiten ditu emaitzak.
- **Legitimitatea lortzeko**. Badakigu nola kudeatzen den, eta kudeaketa publiko ebaluatzea badaukagu, administrazio publikoak duen balioa aitortu ahal izango dugu.
- **Behin legitimatuta, herritar arduratsuak** administrazio publikoarekin lankidetzan aritu daitezten, eta haiek ere erantzukizuna izan dezaten gastuetan, zaintzan, eta abarretan.
- Udalek kontuak ematea herritarrei **arduratsuago egiten ditu kargu politikoak eta** Administrazioarentzat **lan egiten duten pertsonak**, eta, aldi berean, herritarrengan konfiantza sortzea eragiten du.

GARDENTASUNA funtzio publikoa begi bistan jar-
tzeko modua da, betiere arauen arabera gauzatzen
bada, ardura-taldeek kudeaketa zuzenean behatu
dezatela onartuta eta behaketa-lan hori erraztuta.
Gardentasunaren ondorioa da bakoitzaren gain har-
tutako kudeaketa-arduraren gaineko kontuak eman
behar izatea.

KONTUAK EMAN BEHAR HORI edozein zerbitzu
publikoren ezinbesteko betebehar etikoa da. Eta
zerbitzu publiko horren ardura da bere gain hartu
dituen funts, ondasun eta baliabide publikoen kude-
aketaren berri ematea eta horren guztiaren gaineko
erantzukizuna hartzea, betiere, agintean eman duen
denbora tarteko kudeaketari dagozkionak.

2.3. ONARTZEAR DAGOEN GARDENTASUNAREN, INFORMAZIOA ESKURATZEKO BIDEEN ETA GOBERNU ONAREN LEGEA

Gaur egun, izapidetze fasean dago Gardentasunaren, Informazioa eskuratzeko bideen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua.

Estatuak Lege hori onesteak eragina izango du Udal Erakundeetan; izan ere, denbora tarte laburrean (urtebete inguru aurreikusten da) neurri sorta bat hartu beharko dute Lege horrek indarrean ezartzen dituen arauak betetzeko.

Lege proiektu honek **helburu hirukoitz bat** lortu nahi du:

- Gardentasuna bultzatzea eta jarduera publikoak gardenagoak izatea, horretarako publizitate eraginkorra egiteko jarrerak sustatuta arlo publikoan.
- Onartzea eta bermatzea informazioa jasotzeko eskubide erabatekoa.
- Zehaztea arduradun publikoek ondo gobernatzeko zer bete behar duten eta zeregin hori ez betetzeak zer ondorio juridiko izan dezakeen, tartean ondorio penalak.

Lege Proiektuak **titulu bi ditu**:

I. Titulua: **JARDUNBIDE PUBLIKOAREN GARDENTASUNA**, ardatz bi dituena:

- a) **Publizitate aktiboa**: honen ondorioa da edozein administrazio publikok bere kaxa jarri behar duela informazioa herritarren eskura, modu argi, egituratu eta ulergarrian, eta neurriak hartu behar dituela argitaratutako informazioa atzigarria, harekin lan egiteko modukoa, kalitatekoa eta berrerabilgarria izan dadin, eta, aldi berean, erraz atzematekoa eta aurkitzekoa.

Administrazioek herritarren eskura jarri beharreko informazioa askotarikoa da: instituzioaren gaineko informazioa, antolamenduaren eta planifikazioari buruzkoa, lege aldetik garrantzitsua, eta informazio ekonomikoa, aurrekontuena eta estatistikoa.

- b) **Informazio Publikoa atzitzeko eskubidea**: edozein pertsonak eskatu dezake udalen esku dauden eta udalek beren betebeharren ondorioz egin edo eskuratu izan diren dokumentuak ikustea. Administrazioak Legean aurreikusitako arrazoietakoa bategatik bakarrik ukatu dezake eskubide hori, orain arte gertatu izan denaren kontra, hain zuzen. Izan ere, orain arte, informazioa atzitzeko eskubidea mugatuta egon da, eta bakarrik ikuskatu zitezkeen espediente baten parte izan eta artxiba-

tegi administratiboetan zeuden erregistro eta dokumentuak, betiere, bukatutako prozedura bati buruzkoak izanez gero. Halaber, Lege Proiektuak informazio-unitateak sortu beharra ezartzen du, herritarren eskabideak bideratzeko eta kudeatzeko.

Informazioa ikusteko prozedura hasteko, eskabidea egin beharko zaio delako informazioa duen organoari, eta eskabide horretan adierazi egin beharko da nola eskuratu nahi den eskatutako informazioa. Eskabidea hilabeteko epean –gehiezez– erantzun beharko da.

II. Titulua: GOBERNU ONA

Gobernu Onari dagokion atalean jasotako xedapenek lege-maila ematen die Gobernuko kideen jarduna gidatu behar luketen printzipio etikoei zein jardutezkoei. Gauza bera egiten du Estatuaren administrazioa, Autonomia Erkidegoetako eta Udal erakundeetako goi-karguen printzipioekin, eta, gainera, zigor-erregimen bat ezartzen dute.

2.4. PUBLIKO ONURADUNA

Gardentasun Planak honako onuradun hauek ditu:

- **barruko publikoa**, udalean lan egiten duten pertsonez osatua, kargu politikoak izan zein teknikoak izan, eta
- **kanpoko publikoa**, herritarrez osatua; hau da, egindako kudeaketaren kontuak jaso behar dituztenak.

Barneko publikoak zein kanpokoak jakin egin behar dute udalak Gardentasunaren alde zer apustu egiten duen; eta aukera izan behar dute, Gardentasunaren arloan, udaletik zer espero duten eta zer ikuspegi duten adierazteko.


Udala gardena izateko, garrantzitsuena honako hau da: pertsona guztiek **parte hartzea** guztiena den helburu horren alde lan egiten: alde batetik, lidergo politikoa dutenak; bigarrenik, udalaren langileek parte hartzea; eta azkenik, herritarren inplikazioa, horiek izango direlako Gardentasunak ematen duen balio gehigarriaren onura jasoko dutenak.

Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da **kultura aldaketa sakon bat, eta parte hartzen duten eragile guztiak prestakuntza sendoa jasotzea.**

3.

**Udala gardena
izateko Bide-orria
garatzen**

Sistemaren feedback



BARNEKOA: hausnarketa: - Politikoa - Teknikoa	Udalek derrigorrean aurkeztu beharreko informazio zein den antzematea	KANPOKOA: Herritarrei galdetu: Gardentasunaren zer esparru lehenetsi behar dira?	PRAKTIKA ONAK: Nortzuk dira liderrak? Nola egiten dute?	Lehentasuna zer esparruk duen antzematea eta zer zailtasun duen
--	--	--	--	--

Helburuak
Nora heidu nahi
den
Faseak
Jarduerak
Arduradunak
Egutegia

Barnean, eta
laguntza eta
parte hartzea
eskatzea

Prozedurak
zehaztea
Arduradunak nor
diren finkatzea
Lan taldeak
Jarraipena
egiteko taldeak
Ebaluazio
sistemak
Web-orrian atal
bat zabaltzea

Gardentasun
jarduerak eta
ekintzak
inplementatzea

Jarraipena
Barne
ebaluazioa
Herritarrek
egindako
ebaluazioa

BIDE ORRIAREN GARAPENA



3.1. ERABAKI POLITIKOA

Gardenago izateko, ezinbestekoa da BULTZADA POLITIKOA

Udal batean, gardentasunaren bidean eman beharreko lehen urratsaren oinarrian **erabaki politikoa** dago; hau da: bide horri ekiteko borondate sendo bat.

Gardentasunak berekin dakarren aldaketa oso sakona da: “barrutik eta barrurantz” lan egitetik –eta lan egiteko eredu horretan kontuak bakarrik barruan ematen dira– **“kanporantz” lan egitera** pasatzen da, eta eredu berri horretan herritarrek jakin egin dezakete eurei eragiten dieten erabakiak nola hartzen diren, nola erabiltzen diren funts publikoak eta zer irizpideren arabera jarduten den udala.

Hortaz, kultura aldaketa horrek berekin dakar, ezinbestean, **lidergo** sendoagoa eta politikarien **parte-hartze** handiagoa; izan ere, politikariek berek sustatu behar dute aldaketa udalean, eta, neurriok eraginkorrak izan daitezen, lehenengoak izango dira hartzen diren neurriak betetzen.

KONPROMISO sorta bat bete behar da:

- **Lidergoa hartzeko konpromisoa.** Gardentasunaren lidergoa hartzen duenak bide egokietatik aurrera egitea ahalbidetu behar du, ardurak dituzten pertsona guztiek beren ardura horiek bete ditzatela lortzeko. Gardentasuna bultzatu behar du, jarduteko arauak eta mugak zehaztu, konfiantza sortu eta prozesuak beharrezkoa duen bitartekaritza politikoa bideratu.
- **Erantzukizuna partekatua izateko konpromisoa.** Konpromiso hau hartzen dute parte hartzen duten eragile guztiak: hautetsien eta teknikoen ardura da (erantzukizun partekatua) aurrera egitea udal gardenago bat lortzeko bidean, zein bere funtzioaren arabera-ko ardurarekin.
- **Konpromiso politikoa.** Konpromiso politikoa hartu behar da gardentasuna bermatzeko, Gobernu Onaren oinarri den neurrian. Egokia izan daiteke Udalak Gobernu Onaren Kode Etikoa (barnerako) ezartzeari, edo Gardentasunaren Aldeko Hitzarmena edo Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Aldeko Hitzarmena (kanporako).



3.2. GARDENTASUNEAN ZEIN HELBURU GALDEGIN DAKIEKE ADMINISTRAZIOARI ETA ERAKUNDE PUBLIKOEI?

ABIAPUNTUKO EGOERA aztertu

- Erabaki politikoa hartu ostean, udalak ezinbestekoa du barnean aztertzea zer egoeratan dagoen eta zein duen abiapuntua Gardentasunaren gaian, noraino heldu nahi duen eta nora heldu daitekeen. **Hausnarketa bat eta autoebaluazio bat** egin behar lituzke zehazteko zer egoeratan dagoen gardentasunari dagokionez: zer egin dugun, zer dugun eta zer arlotan hobetu beharko genukeen.
- **Udalek zeinek bere egoera eta abiapuntua dute Gardentasunari gagozkiola**, eta ohikoa izaten da egoera eta abiapuntu horiek udal bakoitzaren tamainaren araberakoak izatea. Gardentasunean aurreratuta dabilen udal bat nola ireki eta zabaldu datu publikoak pentsatzen egon daiteke, eta txikiago batek, berriz, udalaren arlo bakoitzaren arduraduna nor den publizitatzea izan dezake asmo.
- Udalaren egoera eta abiapuntua zein diren zehazteko eta zer arlotan egingo den hobetze-lana erabakitzeke egin behar den **hausnarketan, ezinbestekoa da Udal Gobernuak eta udaleko talde teknikoak parte hartzea**.

“Euskadiko Udalen Berrikuntzaren gaineke Diagnostikoa”ren emaitzei buruzko txostena (EUDEL, 2012ko abendua)

Punturik gehien:

- Udalaren gobernu taldearen gaineke informazioa lortzeko erraztasuna
- Kontratazioa eta erosketak.

Punturik gutxien:

- Kudeaketaren adierazleen erabilera.

Tamainari erreparatzen badiogu, biztanle gehien duten udalerriek lortzen dituzte puntuaziorik gorenak irizpideen multzoa orokorrean hartuta.



1. Zer egoeratan gaude? Nola nahi dugu egon? Hausnarketa egiteko eredua

- Dokumentu honen **1. eranskinean**, Gardentasunaren arloan udal batek bere auto-ebaluazioa eta barne-hausnarketa egiteko Galdetegia aurkezten dugu.
- Gomendatzen dugu dokumentu hau Alkateak eta beraren aldameneko talde politiko-teknikoak osatutako **lan-talde batek** betetzea.
- Galdetegi honek, askotariko galderen bidez, **11 esparru** aztertzen ditu. **GARDENTASUNA** honako esparru hauetan:

1. Hautetsiak eta konfiantzako karguak
2. Langileak eta udalaren antolamendua
3. Harremanak herritarrekin
4. Udal-plangintza
5. Informazio ekonomiko-finantzarioa
6. Kudeaketa, eraginkortasuna eta efizientzia
7. Kontratazioa
8. Urbanismoa eta obra publikoak
9. *Open Data*
10. Arautegia eta udalaren erabakiak
11. Konpromisoa eta Gardentasuna zabaltzea eta komunikatzea

- Nabarmendu behar dugu udal batek puntuazio jakin bat lortzeak, herritarren eskura jartzen dituen edukien ondorioz, udal horrek herritarren eskura jartzen duen udal informazioaren ikusgaitasun maila soilik erakusten duela, baina ez duela epaitzen ez udal gobernu horren etikotasuna ez eskaintzen duen informazioaren kalitatea.
- Udal baten Gardentasuna neurtzea ez da nahikoa tresna gobernu ona dutela bermatzeko. Ezinbestekoa da etika publiko bat izatea (esate baterako, Gobernu Onaren Kodigo Etiko bat ezarrita) herritarrek aintzat hartuko dituen zerbitzu publiko bat eskaintzeko benetako borondatea (esate baterako, komunikazio-bide irekiak ezarrita, Herritarrentzako Arretarako Bulegoa sortuta, behar denean behar deneko informazio zehatza, argia eta barreiatu gabea eskainita, webaren mapa bat izanda, eta abar).



2. Gardentasunean zein helburu galdegin dakieke administrazioari eta erakunde publikoei?

- Beste edozeren aurretik, udalak jakin egin behar du zer gaitan dagoen legez derri-gortuta gardena izaten.
- **Gardentasunaren, Informazio Publikoa eskuratzeko bideen eta Gobernu Onaren Lege Proiektuaren arabera (5-7 Artikuluak), udalak, udal erakunde auto-nomoak, udal erakunde publiko enpresarialak, merkataritzako sozietate publikoak eta fundazioak behartuta egongo dira informazio instituzionala, antolamenduaren gainekoa (5. Art.) eta informazio ekonomikoa, aurrekontuen gainekoa eta estatistikoa (7. Art.) ematen. Horrez gain, udalak, udal erakunde autonomoek, eta udal erakunde publiko enpresarialek argitara eman beharko dituzte, betiere, zeinek bere arduren esparruan, garrantzi juridikoko informazioa, plangintzarena eta eba-luazioarena (6. Art.).**

5. Artikulua: Informazio instituzionala, eta antolamenduaren eta planifikazioaren gainekoa	6. Artikulua: Garrantzi juridikoko informazioa	7. artikulua: Informazio ekonomikoa, aurrekontuena eta estatistikoa
• Zer funtzio betetzen duten • Ezarpen-arauak. • Nola dagoen antolatuta, zer egitura duen. • Urteko eta urte anitzerako plan eta programak, eta horietan helburu eta jarduera zehatzak finkatzea, helburuok lortze-ko zer bitarteko eta tresna erabiliko diren eta zenbat denbora dagoen aurreiku-sita dena gauzatzeko. • Ebaluatzea eta aldika argitara ematea zenbatean bete diren eta zer-nolako emaitzak izan dituzten, eta hori guztia neurtzeko eta baloratzeko erabilitako adierazpideak azalduta.	• Jarraibideak, argibideak, hitzarmenak, zirkularrak. • Arauzko testuak garatzean egindako espedienteen oroitidazki eta txostenak. • Indarrean dagoen arloko legediak dioenez, tramitatzen diren bitartean denbora tarte batez jendaurreko erakustaldian jarri beharreko dokumentua.	• Sinatutako kontratuak. • Sinatutako hitzarmenenen zerrenda. • Diru-laguntzak eta bestela-ko laguntza publikoak • Aurrekontuak eta urteko kontuak. • Goi-karguen ordainsariak. • Goi-karguen jardunaren bateragarritasunaren gaineko ebazpenak. • Ondasunen eta jardueren urteroko aitortpena. • Zerbitzu publikoak zenba-tean betetzen diren eta zer kalitatekoak diren balioetsi ahal izateko informazio estatistiko nahikoa.



3. Gardentasunaren gaineko zerk du lehentasuna HERRITARRENTZAT?


- Udal agintariek **galderak egin beharko lituzkete kanpoan**, eta **herritarrek Gardentasunaren inguruan zer premia duten jakiteko** ardura izan beharko luke.
- Informazio hori lortzeko bideak askotarikoak dira: herritarren ordezkariekin izandako bilerak zein biztanleei egindako inkestak, eta bi modu horien arteko beste edozein. Bigarren Eranskinean, herritarrei egiteko inkesta baten eredua dator.
- Bide horietatik lortzen duen informazioa baliatu beharko luke Udalak erabakitzeko zer informazio eman behar dien herritarrei, eta zer formatutan eman behar duen informazio hori.

4. Nola ezarri Gardentasuna? Nondik hasi, zein fasetan...?

- **3. Eranskinean**, oharpen bat ematen da gardentasuna ezartzea lehenestearen garrantziari buruz, eta, aldi berean, zein erraza den gardentasuna ezartzea hari dagokion arloetako bakoitzean.
- Hurrengo orrialdeko grafikoa proposatutako hamaika esparruen matriz-laburpen bat da, eta erakusten du zer ordenatan ekin beharko litzaiekeen Gardentasunaren alderdi ugariari. Esparru bakoitzean garrantzia/erraztasuna irizpideak elkartu dira. Grafikorekin beheko partean kokatuta egoteak den-denak direla garrantzitsuak esan nahi du. Hamaika esparruetako bakoitzaren adierazpen grafikoa eta euretarako bakoitzari dagozkion azpiesparruak 3. eranskinean daude zehaztuta.



Garrantzi politikoaren eta Gardentasunaren 11 eremuetako bakoitza ezartzeko erraztasun teknikoaren arteko harremana



5. Nola ekiten diote **BESTE UDAL BATZUEK** Gardentasunaren gaiari?

Gardentasunaren arloan bidea egin nahi duen udalari lagungarria gerta dakioko beste udal batzuek, ibilitako bidearen berri izatea, eta zer-nolako esperientziak izan dituzten eta nolako praktika onak garatu dituzten jakitea.

Zeregin hori errazteko, eta arestian azal dutako gardentasunaren 11 esparruak aintzat hartuta, **“70 Praktika On udal garden bat lortzeko”** izeneko dokumentua idatzi dugu.



3.3. ESTRATEGIA ERABAKITZEA

1. Zergatik egiten dugu apustu Gardentasunaren alde?

- Garrantzitsua da udal gobernua -berak baitu gardentasunaren politikaren lidergoa udalean- **argi izatea zergatik egiten duen apustu** gardentasunaren alde; izan ere, arrazoi horren gainean euskarrituko dira prozesuaren gainerako funtsezko osagaiak.

2. Gardentasunaren Plana Legegintzaldiko Egitasmoan edo Plan Estrategikoan txertatzea


- Gardentasuna kudeaketaren beste arlo bat izan behar da, eta beraz, Legegintzaldiko Egitasmoan txertatu behar da, baita Plan Estrategikoan zein plan-gintza egiteko udalak duen beste edozein tresnatan ere.

3. Noraino heldu nahi/ahal dugu? HELMUGA zehaztea

- Helmuga baldintzatuta dago: zein den abiapuntua, udalak zer baliabide dituen eskura, eta abar.

- Gardentasunari faseka ekin behar zaio.

- Lehenengo, esparru guztien garrantzi maila aztertu behar da ikuspuntu politikotik; eta ikuspuntu teknikitik, ordea, aztertu behar da zein diren ezartzeko errazen.
- Hasi, errazenetik hasi behar da, baina aldi berean garrantzitsuetik, eta apurka-apurka egin aurrera gainerako esparruetan.





4. Jarduteko arauak zehaztea

- **Adostasuna.** Parte guztiek adostuta erabaki behar da zer estrategia erabili: alde politikoaren ekimenez, eta udal langile teknikoek eta gizarte eragileek laguntzarekin.
- **Arauak:**
 - Argiak izan behar dute, eta parte hartuko duten pertsona guztiek erraz ulertzeko modukoak.
 - Azaldu egin behar da zeintzuk moldatu eta egokitu daitezkeen eta zeintzuk ez, eta zer prozedura erabili behar den moldaketa horiek egiteko.
 - Azaldu egin behar da Gardentasuna ezartzeko prozesuan zer muga tekniko, ekonomiko eta juridiko (DBLO, eta abar) dauden, konpetentzien arabera zer muga dagoen eta muga politikorik dagoen.
 - Azaldu egin behar da nola jardungo den (metodologia), eta nola ebaluatuko den.

5. Informazioa eskatu aurretik zabaltzea bultzatzea

- Udalaren jokabidea ez da izan behar informazioa eskatu eta gero zabaltzea, aurrea hartzea eta eskatu gabe zabaltzea baizik; hau da, udalak bere kabuz eta bere ekimenez jarri behar du informazio guztia herritarren eskura.



6. Abiapuntua zein den jakitea estrategia egokitzeo

- Udal bakoitzaren abiapuntua zein den jakinda, eta haren arabera, estrategia izan daiteke: ezartzea, aurrera egitea edo bikaintasuna bilatzea.

EZARTZEA

Udal batzuk gardenagoak izateko oinarriak jartzen hasiko dira, eta lehenbizikoz emango dute argitara informazioa.

AURRERA EGITEA

Beste batzuek, lehenagotik hasitakoak zeregin horretan, ematen duten informazioa hobetzea izango dute helburua, forman eta edukian, eskuragarriagoa izan dadin eta herritarrek erraz ulertzeko modukoa.

BIKAINASUNA BILATZEA

Aurreko bi urratsak eginda eta beteta dituzten udalak prest eta prestatu daude datu publikoak zabaltzeko (*Open Data*) udalerrian aberastasuna sortzeko, eta herritarrei erakusteko beren jardun eta kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia.

7. Zer pertsonak hartuko duten parte ezartzea

- Ezinbestekoa da antzematea zer pertsona den gai Gardentasuna bultzatzeko. Pertsona horiek lidergoa hartzeko gaitasuna izan behar dute, konbentzitzeko eta inoren ekarpenak jasotzeko.
- Gainera, jakin egin behar dugu prozesuan zertzuk ARDURADUNEK nahi dugun parte hartzea, lan talde bat osatu eta argi zehaztu zein den lan talde horren funtzioa eta eginbeharra.



3.4. GARDENTASUNAREN PLANA IDAZTEA

1. Zer lortu nahi dugu? HELBURUAK zehaztea

- Helburuek funtzio argi bat dute: zer egin behar den lehenestea eta muga-lerro bateratu eta partekatu bat ezartzea denentzat. Hortaz, delako helburuok lortzeko erabiliko diren metodoetara egokitu behar dira.
- Helburuok argi, zehatz eta labur zerrendatu behar dira, eta bereizi, batetik, **helburu orokorrak** (noraino heldu nahi dugu), eta bestetik, Gardentasunaren esparru jakinetako **helburu operatiboak** (zehatzak izan behar dute, neurgarriak eta erraz ulertzeko modukoak)

2. Zer jarduera eta ekintza egin behar den zehaztea

- Ekintza konkretuak Gardentasunaren esparruetako bakoitzean.
- Ekintza bakoitzerako, zer helburu dagokion zehaztu, nortzuk arduratuko diren horiek gauzatzen, zertzuk baliabide behar diren, aurrekontua, gauzatzeko egutegia, jarraipena egiteko adierazleak...

3. Egutegi orokor bat ezartzea Plana eta bertan zehazten diren jardunbide eta ekintzak bistartzeko



3.5. PLANAREN BERRI EMATEA

Barnean ematea Planaren berri

- Gardentasunaren Plana udalaren barnean azaldu beharko litzateke.
- Bilera bat egin beharko litzateke langileekin, eta, bilera horretan, Alkateak azaldu beharko luke zerk eraman duen gardentasunaren aldeko apustua egitera eta hura bultzatzera, eta, halaber, azaldu beharko lieke langile guztiei zer espero duen haiengandik (parte hartzeko eta lankidetza eskatu).
- Plan hau testuinguru batean jarri beharko litzateke, ikuspuntu politikotik zein metodologikotik: Gardentasunaren Plana aurkeztu eta zertan oinarritzen den, zer helburu dituen eta jardunbide arauak zein diren adierazi.
- Azalpen horiek, gainera, e-mailez zabaldu beharko lirateke langile guztien artean.

Herritarrei ematea Planaren berri

- Herriari eta herritarrei dagokienez, Plana udalaren web-orrian argitaratu behar da, eta ohar bat bidali komunikabideetara herritarrak jakinaren gainean egon daitezen.
- Unean uneko informazioa zabalduko da herritarren artean Gardentasunaren gaian gertatzen diren aurrerapenei buruz: Plana garatu bitartean, eta bukatzean.
- Planaren gainean ematen den informazioa argia izan behar da, benetakoa eta herritar guztiek ulertzeko modukoa. Gomendatzen da Gardentasuna zer den azaltzean testuinguru batean jartzea, eta bultzatzeko udalak zertzuk arrazoi izan dituen argudiatzea.



3.6. ANTOLAMENDUA PRESTATZEA

Zeharkako ikuspegia

- Gardentasunaren Plana udalaren barnean azaldu beharko litzateke.
- Udalean inor ez da geratuko Gardentasun Planetik kanpo. Honek ezinbestekoa du ikuspegi sistemiko bat, zeharkakoa, alderdi juridikoak, antolamenduzkoak eta aldaketa- kudeaketarenak barne hartzen dituenak. Pertsona eragiten die, eta pertsona horien egiteko moduei.
- Aldaketa hau benetan gauzatzeko, **prestakuntza eta informazioa giltzarri dira**, konpromiso teknikoa lortzeko eta guztiena den helburu partekatu hori gauzatzeko bidean organizazio osoa sentsibilizatzeko eta denak haren alde jarri eta lan egiteko.
- Horigatik guztiagatik, ezinbestekoa da behar bezala **kudeatzea aldaketa**. Izango da aurka egongo denik bai gobernu taldean eta bai udal langileen artean ere.

Prozesuak zehaztea

- Udal gobernuak argi eta garbi erabakitzen duenean Gardentasuna bultzatzea, horrek ondorioak ditu udal antolamenduaren egiturako barne prozesuetan, Gardentasuna zeharkakoa delako antolamenduan.
- Aztertu egin behar dira herritarrek informazioa atxikitze eskura dituzten prozedurak, eta berriro definitu eta garatu. Aukera ezin hobea da prozedurak errazteko.
- Ezin da ahaztu Gardentasunaren eta berritze elektronikoaren artean dagoen lotura zuzena. Gardentasuna eraginkorra izateko ezinbestekoa da informazio sistematik egokitzea.



Kontuak emateko prestatzea

- Udalak prest egon behar du kanpoko erakundeek egiaztapen neutroak egiteko (diru-kontu publikoen auditoriak egitea, adibidez).
- Halaber, prest egon behar du herritarrek udalaren jarduna gainbegiratzeko; esate baterako: kudeaketa, efizientzia eta Gardentasunaren kalitatea eta maila ebaluatzea.
- Eta ez dugu ahaztu behar komenigarria izan daitekeela barne kontrolak ezartzea prozesuak, hobetzeko baliozkoak izan daitezkeen neurrian.

Lan taldeak zehaztea

- Lider politiko argi bat izendatu behar da, berak gidatu dezan Gobernu Garden eta Ireki bateranzko bidea eta aldaketa.
- Lan talde baten ardura izan behar da arlo bakoitzean gardentasuna ezartzea maila teknikoan.
- Ezinbestekoa da Gardentasunaren bulkada koordinatzeko ardura beregain hartuko duen pertsona bat izendatzea, eta bermatuko duena informazioa zuzen eskaintzen dela moduan eta epean. Ohikoa izaten da pertsona hori komunikazio arlokoa izatea, edo bestela administrazioa modernizatzeko sailekoa, berriztatze sailekoa edo parte-hartze eta herritarrentzako arreta zerbitzuko izatea.
- Berariazko sail bat sortzea Web-orrian.
- Esandako guztia aurrera eramateko, ezinbestekoa da lan sendo bat udal langileak sentibilizatzeko eta prestatzeko, udal langileak gai izan daitezen lan egiteko modu berri, ireki eta garden honetan. Gainera, azpimarratu egin behar da lan egiteko modu honen garrantzia, eta beraren onurak nabarmendu.

Udalaren web-gunea

- Informazio publikoa eskaintzeko udalaren euskarri nagusia izan beharko litzateke, eta Gardentasunari buruzko berariazko sail bat izan beharko luke.
- Beraren diseinua Gardentasunaren esparruei dagozkien adierazleetan oinarritu beharko litzateke. Eta gainera, Gardentasunak lekua izan beharko luke udalaren web-guneko gainerako ataletan: udalaren antolamenduari buruzko atalean; kontratugilearen perfila, obrak eta hirigintza; eta abar.



- Beharrezkoa da udalaren komunikazio sailarekin elkar lanean aritzea beharko luke edukiak nola txertatu daitezkeen erarik egokienean diseinatzeko; hau da, ordenatuta, argi eta ondo aurkeztuta.

3.7. JARDUERAK ETA EKINTZAK EZARTZEA

Beharrezko jarduerak eta ekintzak ezartzea, bitarteko egokiak ipintzea ekintzon jarraipen eta ebaluazio prozedura egokiak egiteko, eta behar bezala zabaltzeko egingo diren ekintza horiek.

- Lehenengo, argitaratu egin behar da indarrean dagoen arau-tegiak agindutako informazioa.
- Gero, udal bakoitzak nondik hasi nahi duen erabaki behar du.
- Laguntasuna behar bada Gardentasunera egokitzeko faseak eta epeak zehazteko, lagungarri izan daiteke Sarearen udal-etako politikoen eta langile teknikoek laguntzarekin garatu diren lehenetsuneko gomendioei erreparatzea.
- Prozedurak ezarri behar dira informazioa moduan eta epean eskaintzeko. Gardentasuna udalean duen bulkada koordinatzeko ardura duen pertsonak prozedurak, epeak eta abar betetzen diren jakinaraziko du.



3.8. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Gardentasunaren Planaren jarraipena eta ebaluazioa

- Jarraipena eta ebaluazioa aukera iraunkorra dira udala etengabe hobetzeko. Jakiteko eta ikasteko iturri dira.
- Ebaluazioa jarraia izateko, etengabe eduki behar dira zabalik informazioa jasotzeko bideak eta beti eskura asebetetzearen gaineko analisiak; horretara, lortzen diren emaitzen arabera berbideratzeko plana.
- Gardentasuna bultzatzen duten pertsonena da prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura. Udalaren konplexutasunaren edo tamainaren arabera, interesgarria izan daiteke Jarraipen Batzorde bat osatzea.
- Gardentasunaren Planaren jarraipena etengabe eta era jarraian egingo da, delako Planean jasotako neurrietarako zehaztutako adierazleen bidez, eta informazioa aldika jasota.
- Modu horretan, Planean zehaztutako neurriak eta ekintzak zenbatean betetzen diren gainbegiratu eta ebaluatu ahal izango da, eta ondorioz, une bakoitzean beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak abiatu ahal izango dira.

Jarraipena egiteko **tresnak** honako hauek izango dira:

- **Planaren Aginte Taldea:** jarraipen jarraia egiteko balioko du eta behar diren neurri eta erabakiak hartzeko. Jarraipen bilerak aldika egingo dira.

Horietan, lortutako emaitzak ebaluatuko dira, eta hobetu beharra duten arloetan eragiteko zer-nolako ekintzak eta jarduerak egin behar diren eztabaidatu eta erabakiko da. Gomendatzen dugu bilera horiek hilero edo hiru hilean behin egitea.
- **Planaren urtero ebaluazioa,** eta horrek balioko du hurrengo urteko Jarduera Plana zehazteko. Plana amaitzen denean, beraren ebaluazio orokor bat egingo da.



Planaren ebaluazio bat egiteko, gogoan izan behar dira:

- Zehaztutako helburuak direla-eta lortutako **emaitza** kuantitatiboak.
- Prozesuaren beraren gaineko **adierazle** kuantitatiboak: zenbat jarduera eta ekin-tza egin diren, zenbat informazio dokumentu argitaratu diren, zenbat jakinarazpen kaleratu diren, herritarrek udal Gardentasuna dela-eta zenbat iruzkin egin dituzten eta nola baloratu duten, eta abar.
- Eta, gainera, **atzematen zailegiak** diren beste kontu batzuk ere zaindu egin behar dira: pertzeptzioak, Gardentasunez aritzeak udalean eragindako barne hobekun-tzak, herritarrek konfiantza handiagoa izatea udalean... eta, horretarako, balorazio kualitatibo bat eskainiko diguten galdetegiak erantzunda eduki behar dira, elkarriz-ketak eginda, eta abar.

Eranskinak

**Udal gardenago
bat eraikitzeko
tresnak**

A.1

**Gardentasunaren
arloan, udalak
hausnarketa bat
egiteko galdetegia**

GALDETEGIA

GARDENTASUNA UDALETAN ZERTAN DEN HAUSNARTZEKO ETA AUTOEBALUATZEKO

Udala:	
Data:	

Honako galdetegi hau udalak Gardentasunaren gaian ibili eharreko bidearen lehen etapa da.

Beraren helburua da hausnartzea eta zehaztea:

- Zer puntutan gauden Gardentasunaren arloan: zer egin dugun, zer dugun.
- Zer arlotan saiatu behar dugun hobetzen.

Galdetegia honako **kapituluak** ditu:

1. Gardentasuna hautetsien eta konfiantzazko karguen inguruan
2. Gardentasuna udal-langileen eta Udalaren antolamenduen inguruan
3. Gardentasuna udalak herritarrekin dituen harremanetan
4. Gardentasuna udalaren plangintzan
5. Gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioaren arloan
6. Gardentasuna eta kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia
7. Gardentasuna kontratazioetan
8. Gardentasuna hirigintzaren eta obra publikoen arloetan
9. *Open Data*
10. Arautegia eta udal-erabakiak
11. Gardentasunaren aldeko konpromisoa, eta hura zabaltzea eta iragartzea

Gomendatzen dugu dokumentu hau Alkateak eta beraren aldameneko talde politiko-teknikoak osatutako lan-talde batek betetzea.

1. Gardentasuna hautetsien eta konfiantzazko karguen inguruan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
1.1. Argitaratzen du udalak hautetsien eta konfiantzazko karguei buruzko informaziorik, herritarrek zehatz jakiteko moduan nor den nor -curriculuma barne- eta zer funtzio betetzen duen Udalean?				
1.2. Argitaratzen du udalak konfiantzazko zenbat kargu dauden lanean, eta zer arlotan egiten duten lan?				
1.3. Argitaratzen du udalak langile guztien ehuneko zenbatekoa diren konfiantzazko kargu horiek?				
1.4. Argitaratzen du udalak nola jarri daitekeen harremanetan udal hautetsiekin?				
1.5. Argitaratzen du udalak zenbatekoak diren hautetsien eta konfiantzazko langile horien oinarritzko ordainsariak?				
1.6. Argitaratzen du udalak zenbateko dietak jasotzen dituzten konfiantzazko kargu eta langile horiek udalbatzetan, komisiotan ... eta abarretan parte hartzearen?				
2. Gardentasuna udal-langileen eta Udalaren antolamenduaren inguruan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
2.1. Argitaratzen du udalak udal-langileei buruzko informaziorik, herritarrek zehatz jakiteko moduan nola dagoen antolatuta udala?				
2.2. Argitaratzen du udalak zenbat langile ari diren lanean arlo bakoitzean?				
2.3. Argitaratzen du udalak zein diren arlo bakoitzean lanean ari diren langileen betebeharrak?				
2.4. Argitaratzen du udalak organigrama oso eta zehatz bat, eta zehazten du bertan nor diren arloen arduradunak?				

	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
2.5. Argitaratzen du udalak nor diren arlo bakoitzaren arduradunak?				
2.6. Argitaratzen du udalak nola jarri daitekeen harremanetan arlo bakoitzaren arduradunekin?				
2.7. Zehatz eta argi -eta ez sakabanatuta- argitaratzen du udalak arestian aipatutako informazioa, eta, hori egiten badu, posible ote da informazio horrekin analisi eta ebaluazio bat egitea Udalaren antolatzeko moduaren gainean eta Udala funtzionarazten duten pertsonen buruz?				
2.8. Langileak kontratatu behar dituztenean, ematen du argitara udalak kontratatze prozedura zein den eta arrazoitzen du prozedura horren bidezotasuna?				
2.9. Langileak kontratatu behar dituztenean, garbia eta gardena da hautaketa-prozesua, eta hartzen dira aintzat lanpostuaren ezaugarriei dagozkien ezagutza eta merezimenduak?				
3. Gardentasuna udalak herritarrekin dituen harremanetan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
3.1. Badaki udalak zer beharizan dituzten benetan herritarrek Gardentasunaren arloan? Hartu du ardura jakiteko zer espero duten herritarrek udalaren aldetik Gardentasunaren arloan, eta jakiteko Gardentasunaren arloko zer gai iruditzen zaizkien garrantzitsuen?				
3.2. Badu udalak zehaztuta inolako prozedurarik herritarrek egindako informazio-eskabideei erantzuteko?				
3.3. Hartu du udalak inolako konpromisorik herritarrek egindako informazio-eskabideei erantzuteko denbora tarteari buruz?				

	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
3.4. Badute herritarrek jasotako zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko modurik?				
3.5. Badute herritarrek hobekuntza-iradokizunak egiteko modurik?				
4. Gardentasuna udalaren plangintzan				
4.1. Legegintzaldirako Egitasmoa				
4.1.1. Badu udalak Legegintzaldirako Egitasmorik?				
4.1.2. Ematen du udalak argitara bere Legegintzaldirako Egitasmoa?				
4.1.3. Legegintzaldirako Egitasmoa argitaratzeaz gain, azaltzen du zergatik hautatu dituen bere lan-lerroak?				
4.1.4. Badago adierazlerik ebaluatzeko nola ari den gauzatzen Egitasmo hori?				
4.2. Beste Egitasmo batzuk	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
4.2.1. Badu udalak bestelako egitasmo eta programarik urte beterako edo urte anitzerako?				
4.2.2. Ematen ditu udalak argitara egitasmo horiek?				
4.2.3. Argitara emateaz gain, azaltzen du zergatik hautatu dituen bere lan-lerroak?				
4.2.4. Badago adierazlerik ebaluatzeko nola ari diren gauzatzen egitasmo horiek?				

5. Gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioaren arloan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
5.1. Aurrekontua				
5.1.1. Ematen du udalak argitara udal-aurrekontu osoa?				
5.1.2. Ahalegintzen da udala aurrekontuaz emandako informazioa ulergarria izan dadin? Xehatuta ematen du aurrekontuaren gaineko informazio hori, laburpen-koadro eta grafikoz hornituta?				
5.1.3. Aurrekontuarekin batera, ematen du udalak argitara glosario edo terminoen azalpen bat, hizkuntza errazean adierazita?				
5.1.4. Ematen du udalak ezagutzera adierazlerik, horiek zer esan nahi duten hizkuntza errazean azalduta?				
5.1.5. Bananduta ageri dira aurrekontuan derrigorrezko zerbitzuak eta derrigorrezkoak ez direnak?				
5.1.6. Ematen du udalak modurik jakiteko nola aldatu diren azken ekitaldietan urteko aurrekontuak eta zergatik gertatu diren aldaketa horiek?				
5.1.7. Ematen du udalak argitara nondik lortzen dituen diru-sarrerak?				
5.1.8. Ematen du udalak argitara udal-aurrekontuaren eta diru-sarreraren artean desbideratzerik dagoen, eta halakorik egonez gero zergatik gertatzen den?				
5.1.9. Ematen du udalak argitara nola banatzen diren udal-gastuak partidaka?				
5.1.10. Ematen du udalak argitara udal-aurrekontuaren eta gastuen artean desbideratzerik dagoen, eta halakorik egonez gero zergatik gertatzen den?				

5.1.11. Ematen du udalak argitara zenbat kostatzen diren biztanleko berak eskaintzen dituen zerbitzuak (esate baterako: zenbat kostatzen den arreta-zerbitzua pertsonako, eta abar)	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
5.1.12. Ematen du udalak argibiderik esleitutako diru-laguntzen eta bestelako laguntzen gainean?				
5.2. Zorra	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
5.2.1. Ematen du udalak argitara zer zor duen?				
5.2.2. Ematen du udalak herritarrek argi eta garbi ulertzeko moduko daturik udal-zorraren gainean eta zer-nolako bilakaera duen?				
5.2.3. Ematen du udalak argibide argi eta herritarrek ulertzeko modukorik -grafikoz, laburpen-koadroz eta abarrez hornituta-, zorraren gainean eskaintzen duen informazioa behar bezala ulertu dadin?				
5.2.4. Ematen du udalak argitara terminoen glosario bat, zorraren gainean eskaintzen duen informazioa behar bezala ulertu dadin?				
5.3. Informazio ekonomikoaren gaineko argibideak emateko ahalegina	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
5.3.1. Egiten du udalak ahaleginik emandako informazioa ulergarria izan dadin, eta, horretarako, biltzen du informazioa gaika inor ibili ez dadin sail batetik bestera gai jakin bati dagokion informazioaren bila?				

5.3.2. Egiten du udalak ahaleginik emandako informazioa ulergarria izateko formatu egoki erabilia? Sortzen dituen dokumentuetan, erabiltzen du kolorerik? Banatzen ditu dokumentuok atalka grafikoz hornituta, gaur egungo tipografia baliatuta eta buletinekoa ez bezalako testu formatuak erabilia?	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
5.3.3. Egiten du udalak ahaleginik daturik garrantzitsuenak hiritarregana hurbiltzeko, batez ere, internetik ez dutenengana; esate baterako, aurrekontua eta urteko kontuak buzoneatuta edo jendaurreko agerraldiak eginda?				
6. Gardentasuna eta kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
6.1. Ematen du udalak argitara -herritarrek ulertzeko moduko adierazleen bidez- zenbatean gauzatu den Legegintzaldiko egitasmoa?				
6.2. Ematen du udalak argitara inolako azalpenik Legegintzaldiko Egitasmoari buruz, edo zergatik atzeratu edo moldatu den hasierako plangintzarekin alderatuta, eta hori konpontzeko egindako proposamen alternatiboak eta konponbideak?				
6.3. Ematen du udalak argitara -herritarrek ulertzeko moduko adierazleen bidez- zenbatean gauzatu diren beste egitasmo batzuk eta zer gauzatze-unetan dauden?				
6.4. Ematen du udalak argitara inolako azalpenik beste egitasmoei buruz, edo zergatik atzeratu edo moldatu diren hasierako egitasmoekin alderatuta, edo geroago proposatutako konponbideekin konparatuta?				

7. Gardentasuna kontratazioetan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
7.1. Jakin dezake edozein herritarrek, inolako trabarik gabe, nor kontratatu duen udalak, zer lan egiteko, zenbat kobratuko duen, eta abar?				
7.2. Eskaintzen du udalak kontratazio-prozesu guztiaren dokumentazio osoa?				
7.3. Kontratazio batean, azaltzen die udalak hautatu ez diren enpresei zergatik ez dituzten hautatu? Argiak eta nahiko dira azalpen horiek?				
7.4. Eskaintzen du udalak enkanteak iragartzeko jakinarazpenetara harpidetzeko aukerarik?				
8. Gardentasuna hirigintzaren eta obra publikoen arloetan	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
8.1 Argitaratzen du udalak Hiria Antolatze Plan Orokorra (HAPO)?				
8.2. Formatu ulergarrian argitaratzen du udalak HAPOa?				
8.3. Plano eta lokalizazio eta guzti egiten du argitaratze hori?				
8.4. Ematen du argibiderik plangintzari eragiten dioten edo herritarrei eragin diezaieketen aldaketei buruz?				
8.5. Azaltzen die udalak zuzenean herritarrei, beste leku batzuetara -artxibo edo sail- joan beharra izan gabe, obra garrantzitsuenen unean uneko egoera, aurrera egiten duten, hurrengo jarduerak, gertakariak, eta erabakitako konponbideak? Halaber, azaltzen die zergatik aldatu den hasierako aurrekontua?				
8.6. Ematen du azalpenik lurraren kalifikazioan izandako aldaketei eta antzekoei buruz?				
8.7. Ematen du azalpenik arautegian izandako aldaketei buruz?				

9. Open Data	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
9.1. Jartzen da herritarren eskura udalak duen informazio publikoa, haiek enpresa berriak sortzeko eta udalaren garapena bultzateko erabili dezaten?				
10. Arautegia eta udal-erabakiak rriak	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neu rriak
10.1. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik arautegiaren gainean?				
10.2. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik noiz izaten diren Udalbatzak, Gobernu Batzordeak eta Komisioak?				
10.3. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik hitzarmenen gainean?				
10.4. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik Gobernu Batzordean hartutako erabakien gainean?				
10.5. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik Udalbatzetan hartutako erabakien gainean eta haien aktak?				
10.6. Jartzen da herritarren eskura informazio publikorik Alkatezak emandako Dekretu eta ebazpenen gainean?				
11. Gardentasunaren aldeko konpromisoa, eta hura zabaltzea eta iragartzea	Bai	Ez	Zer falta dugu?	Hartu beharreko neurriak
11.1. Adierazi du udalak inolako konpromisorik edo egin du aitorten edo manifestu idatzirik Gardentasunari eta Gobernuaren etikari buruz?				
11.2. Badu udalak bere web-orrian leku jakin eta zehatz bat Gardentasunari dagokion informazio osoa jasotzeko?				
11.3. Ebaluatzen du udalak herritarrek pozik dauden Gardentasunaren arloan?				
11.4. Hartzen ditu gogoan eta txertatzen ditu bere egitasmoetan, argi eta garbi, herritarrek egiten dizkieten iradokizunak?				

A.2

**Gardentasunaren arloan,
herritarren beharrianak
eta lehentasunak
antzemateko galdetegia
udalentsat**

GALDETEGI EREDUA

GARDENTASUNAREN ARLOAN HERRITARREK ZER BEHARIZAN DITUZTEN UDALETAN ZERTAN DEN ANTZEMATEKO

Udalaren Gardentasunari dagokionez, zure lehentasunak zein diren jakitea gustatuko litzaiguke. Mesedez, eskertuko genizuke galdetegi honi erantzutea:

1. Neurtu zer **garrantzia duen zuretzat udalak honako jarduera hauek egitea:** (1 “ez da batere garrantzitsua” eta 10 “oso garrantzitsua”).

■ UDAL GOBERNUAREN GARDENTASUNA

Garrantzitsua iruditzen zaizu udalak...

- organigrama argitaratzea, eta bertan nor diren arlo bakoitzaren arduradun politikoak eta konfiantzako karguak zehaztea?
- arlo/udal-zerbitzu bakoitzeko arduradunen zerrenda argitaratzea?
- lanpostuen zerrenda argitaratzea, arloka eta funtzioka?
- argitaratzea nola jarri harremanetan arlo bakoitzaren arduradunekin?
- Gobernu Organoak zein diren argitaratzea, eta zein euren funtzio eta betebeharrak?

■ GARDENTASUNA UDALAK HERRITARREKIN DITUEN HARREMANETAN

Garrantzitsua iruditzen zaizu ...

- Udalarekin harremanetan jartzeko moduren bat eskaintzea?
- herritarrei informazioa eskainiko dien arreta-zerbitzu bat egotea, fisikoa zein online bidezkoa?
- gure iritzia emateko modua izatea zerbitzuek lortzen duten asebetetze mailaz?
- gune bat egotea Gardentasunaz izan ditzakegun galderak erantzuteko?
- gure iritzia emateko modua izan dezagula udalaren Gardentasunaz?
- udalak aldizkari bat izatea herritarrak jakinaren gainean jartzeko erregularitasunez herriarentzat garrantzitsuak diren gai eta arazoez?

■ GARDENTASUNA ARLO EKONOMIKOAN

Garrantzitsua iruditzen zaizu ...

- Aurrekontuen berri eman dezala, eta zenbatean gauzatu diren eta zer bilakaera izan duten azaldu dezala?
- udal zorraren berri eman dezala, eta zer bilakaera izan duen azaldu dezala?
- ekonomiaren egoeraren, diru-sarreraren eta gastuen berri eman dezala, argi eta erraz ulertzeko moduan?
- Balantzea eta emaitzen Kontua argitaratu ditzala?
- kontuen auditoria argitaratu dezala?
- mandako diru-laguntzen eta bestelako laguntza publikoen berri eman dezala?

■ GARDENTASUNA UDALAREN GOBERNU JARDUNBIDEAN ETA KUDEAKETAN

Garrantzitsua iruditzen zaizu Udalak ...

- Plan Estrategikoa eta Legegintzaldiko Egitasmoa argitaratu ditzala?
- Plan Estrategikoa eta Legegintzaldiko Egitasmoa zenbatean ari diren betetzen azaldu dezala?
- Udalbatzetako eta bestelako Batzordeetako gai-zerrendak, aktak eta haietan hartutako erabakiak argitaratu ditzala?

■ GARDENTASUNA ZERBITZUAK KONTRATATZEAN

Garrantzitsua iruditzen zaizu ...

- lehiaketen eta esleipenen gainean informatzea?
- sinatutako kontratuetan egindako moldaketak argitaratzea?
- sinatutako hitzarmenak argitaratzea, norekin sinatu dituen, zergatik eta zertarako, eta zenbat dirutan?

■ GARDENTASUNA HIRIGINTZAREN ETA OBRA PUBLIKOEN ARLOETAN

Garrantzitsua iruditzen zaizu Udalak ...

- hirigintzako plana argitara ematea?
- hirigintzako hitzarmenen eta kalifikazio-aldaketen berri ematea?
- egingo diren obra eta lanen berri ematea (non, zergatik, nork, zenbatean, noiz)?
- zer egoeratan dauden lanok azaltzea, eta zer-nolako bilakaera izan duten?
- azaltzea zenbat diru inbertitzen duen, zenbateko diru-sarrerak dituen eta zenbat gastatzen duen azpiegituretan?

- 2. Gardentasunari dagokionez, informatzen du, zure ustez, Udalaren web-orriak zure ardurakoak diren gaiei buruz? 1etik 10era. Arrazoitu zure erantzuna.**

.....

.....

.....

- 3. Nola nahi duzu zabaltzea udalak Gardentasunari dagokion informazioa? Erantzun irekia.**

.....

.....

.....

- 4. Badago mentatu ez dugun, baina arduratzen zaituen beste ezer Gardentasunaren arloan? Erantzun irekia.**

.....

.....

.....

- 5. 1etik 10era, zure ustez, zenbatean da gardena udala?**

- 6. Zertan hobetu beharko luke Udalak, zure ustez, Gardentasunari dagozkion kontuetan? Erantzun irekia.**

.....

.....


.....

A.3


**Ikuspuntu politikotik
Gardentasunaren
zer alde diren
garrantzitsuenak eta
ikuspuntu teknikotik
gardentasuna ezartzeko
zer zailtasun dauden
inkestetan jasotako
emaitzen gaineko
txostena**

- “Gardentasuneranzko Bide-orria”ren eranskin honek oharpen bat ematen du gogorarazteko gardentasuna ezartzea lehenestea zein garrantzitsua den eta, aldi berean, zein erraza den Gardentasuna ezartzea berari dagokion arloetako bakoitzean. Oharpen hori Sarearen parte diren udaletan jasotako iritzietatik abiatuta garatu da.
- Lehentasunak zein diren jakiteko eta zein horiek ezartzeko erraztasun maila, galdetegi bi prestatu ziren. Galdetegietako bat **ordezkari eta hautetsi politikoek** erantzun beharrekoa da (garrantzi maila identifikatzeko), eta bestea, **ordezkari teknikoek** betetzekoa (erraztasun maila identifikatzeko).
- Emaizak aztertuta, matrize bat landu da Gardentasunak barne hartzen dituen askotariko arloei zer ordenatan ekin beharko litzaiekeen erakusten duena, betiere, ahaztu gabe bete egin behar dela indarrean dagoen arautegiak agintzen duen guztia.
- Ondoren ageri diren grafikoetako bakoitzak adierazitako azpiesparruetako bakoitzean lortutako erantzunak erakusten ditu. Esparru eta azpiesparru guztiak grafiko bakoitzaren azpiko partean daude, eta horrek garrantzitsuak direla adierazten du (bakoitza bere mailan, jakina). Egia esateko, sakabanaketa handiagoa ageri da esparru/azpiesparru bakoitzaren ezarpen-erraztasunari dagokionez.


GARDENTASUNAREN 11 ESPARRUEN GARRANTZIA ETA EZARTZEKO ERRAZTASUNA LABURTZEN DUEN MATRIZEA




3. AZPIESPARRUA




4. AZPIESPARRUA



5. AZPIESPARRUA




6. AZPIESPARRUA



7. AZPIESPARRUA


Gardentasuna UDALAREN KUDEAKETAN: ERAGINKORTASUNEAN ETA EFIZIENTZIA



1. Herritarrek argi eta garbi ulertzeko moduko adierazleak argitara ematea herritarrek zehatz jakin dezaten zenbatean gauzatu den Legegintzaldiko egitasmoa.
2. Argitara ematea Legegintzaldiko Egitasmoa zergatik atzeratu edo moldatu den hasierako plangintzarekin alderatuta, eta hori konpontzeko geroago egindako proposamenak eta konponbideak.
3. Argitara ematea zenbatean gauzatu diren beste egitasmo batzuk eta zer gauzatze-unetan dauden.
4. Argitara ematea Legegintzaldiko beste egitasmoak zergatik atzeratu edo moldatu diren hasierako plangintzarekin alderatuta, eta egitasmo horiek direla-eta geroago egindako proposamen alternatiboak.


8. AZPIESPARRUA

Gardentasuna KONTRATAZIOETAN




1. Argitara ematea nor kontratatu duen udalak, zertarako kontratatu duen, zer prozedura erabili duen horretarako, zenbat ordainduko dioen, zenbat denboratarako, eta abar.
2. Azaltzea hautatu ez diren enpresei zergatik ez dituzten hautatu, modu argian eta behar beste azalpen emanda.


9. AZPIESPARRUA



10. AZPIESPARRUA



11. AZPIESPARRUA



A.4

**Gomendioak informazio
ekonomiko-finantzarioa
aurkezteko herritarrek
ulertzeko moduan**

- Aurrekontuak eta eurekin batera eman beharreko dokumentuak (aurrekontuen likidazioak, oroitidazkiak, fiskalizazio eta kontuen auditorien gaineko txostenak...) dira, behar bada, udal baten dokumenturik funtsezkoenak; izan ere, bertan jasotzen da nola gauzatu diren asmo politikoak eta zer eragin izan duten benetan aberastasuna sortzeko jarduerak bultzatzeko, gizarte babesa finkatzeko ekintzak sortzeko, jasangarritasunari eusteko... Arrazoi hori beragatik, Gardentasuna oso garrantzitsua da, bereziki arlo honetan.
- Jakina, beti bezala, udal batek, lehenbizi, bete egin behar ditu etorkizuneko Gardentasunaren, Informazio eskuratzeko bideen eta Gobernu Onaren Lege batek ezarri ditzakeen gardentasun betebeharrak. Baina, kontuan izanda gai honek duen munta, uste dugu garrantzitsua dela are urrunago joatea, eta, informazioa emateaz gain (esate baterako, aurrekontu osoa argitaratuta eta haren indarraldi osoan berarekin batera joaten diren dokumentuak: aurrekontua nola egin den, betearaztea, itxiera eta egiaztapena), informazio hori ulergarria izan behar dela herritarrentzat, modua izan dezaten udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa balioesteko eta, fase garatuago batean, egokien jotzen dituzten hobekuntzak proposatzeko.
- Gardentasun goren hori lortzeko, gomendio sorta bat aurkezten dugu "Gardentasunerazko Bide-orria: Udal gardenago bat eraikitzeke estrategia eta tresnak" dokumentu honetan. Horrez gain, "Gardentasunezko 70 praktika on Udaletan" dokumentuan -EUDELEK argitaratutakoa Gardentasunaren aldeko Euskal Herriko Udalen Sarearen markoan- gomendio horien benetako adibide praktikoak aurkitu daitezke, "Gardentasun ekonomiko-finantzarioa"ri dagokion 5. atalean, hain zuen.

1. GOMENDIOA: **Aurrekontuak oso-osoan aurkeztea**

Aurrekontua beraren luze-zabalean argitaratu behar da, eta horretaz gain udalaren web-orrian -dagokion azpisailean- bertsio laburtu eta eskematizatu bat eman behar da argitara. Gardentasunik gorena aurrekontuen plangintza oso-osoan aurkezten duen udalarena dela esan genezake; hau da: aurrekontuaren exekuzioa (hilekoa, hiruhilekoa edo seiuhilekoa) eta azken likidazioa aurkeztea, herritarrei erakusteko nola gauzatu den aipatu aurrekontua.

2. GOMENDIOA: **Aurrekontuak finkatuta eta kontsolidatuta aurkeztea**

Gomendatzen zaie udalei aurkezteko udal-aurrekontuak beste udal-erakunde eta udal-organismo batzuen aurrekontuekin batera; izan ere, horrelaxe errazten da udalaren benetako egoera ekonomikoa ebaluatzeko modua izatea.

3. GOMENDIOA: Exekutututako aurrekontuaren laburpen bat eta hari atxikitako dokumentuena

Laburpen horretan saiatu behar da aurrekontuaren lerro nagusiak azaltzen, hizkuntza erraz batean eta ulergarria herritarrentzat. Dokumentu hau, udalaren web-gunean argitaratzeaz gain, beste euskarri batzuetan ere zabaltu daiteke: udal aldizkariak, buzo-neatzeko argitalpenak...

4. GOMENDIOA: Hizkuntza erraza eta atsegina erabiltzea

Udal-gobernuek argi izan behar dute aurrekontuak ez direla dokumentu administratibo hutsak, eta horien jasotzaileen artean herritarrak ere badaudela.

Herritar gehienak ohituta ez daudenez terminologia ekonomiko-finantziariora, gomendagarria da terminoen glosario bat atxikitzea edo oharra ematea marjinetan udalak emandako informazioa ulergarriagoa egiteko.

5. GOMENDIOA: Grafikoak erabiltzea ulergarritasuna bermatzeko

Erabiltzen den formatua, bisuala, bere baitan ere hizkuntza mota bat da, eta, beraz, zenbat eta hurbilago, argiago eta ulergarriago, orduan eta hobeto.

Grafikoek erraztu egiten dute ikusteko modu orokorra eta erakargarriagoa egiten dute informazio ekonomiko-finantzarioa. Gomendagarria da, beraz, grafiko bidez adieraztea balio bakoitzak zer pisu duen balio orokorrean, balioak alderatzea kategoriara, eta bistaratzea diru-sarrerak eta gastuak nola dauden osatuta eta zer bilakaera izan duten.

6. GOMENDIOA: Aurreragoko ekitaldietako aurrekontuak atxikitzea, aurrekontuok nola bilakatu diren alderatzea ahalbidetzeko

Unean uneko egoera zein den jakitea bezain garrantzitsua da Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioaren joera nolakoa den jakitea. Horrexegatik, hain zuen, gomendatzen da aurreragoko ekitaldietako aurrekontuak atxikitzea eta alderatzea.

7. GOMENDIOA: **Diru-kontuak ikuskatuta eta auditatuta aurkeztea**

Web-orrian argitaratu beharko litzateke udalaren edozein auditoria, barnekoa zein kanpoko, eta haren menpeko erakundeena; izan ere, horrela dute herritarrek segurtasuna udal-gobernua behar bezala ari dela kudeatzen baliabide publikoak.

8. GOMENDIOA: **Pertsonako zenbat gastatzen den erakusten duten adierazleak aurkeztea**

Gastuari dagozkion kontzeptuak “gastua pertsonako” adierazlearen bidez emateak - edo “gastua erabiltzaileko” edo “interesdun biztanleriko”- erraztu egiten du herritarrek ulertzea aurkeztutako gastuaren eragina.

9. GOMENDIOA: **Hainbat urtetarako proiektuak sartzea aurrekontuetan**

Aurrekontuen gaineko informazioan, hainbat urtetarako proiektuen gaineko informazioa txertatzeak modua ematen die herritarrei benetan jakiteko gastuak guztira zenbatekoak izan diren, zenbatekoak inbertsioak eta nola banatu diren horiek guztiak denboran barrena.

10. GOMENDIOA: **Ratio ekonomiko-finantzarioak aurkeztea**

Ratioek egoera ekonomiko-finantzarioa azaltzen laguntzen dute, eta udalaren aurrekontua nola betetzen den.

11. GOMENDIOA: **Egoera ekonomiko-finantzarioaren bilakaera**

Aurreko gomendioari dagokionez, azpimarratu behar dugu argitaratzeko adierazle ekonomiko-finantzarioek zer bilakaera izan duten azken aspaldian (3-5 ekitaldi), udalaren egoera nola aldatu den ulertzeko modua egon dadin.

12. GOMENDIOA: **Inbertsioak zehaztea eta kanpoko finantzazioa**

Egingo diren inbertsioak zehaztea eta jakitera ematea bezain garrantzitsua da ebaluatzea diru-sarreraren eta gastuen arteko loturatik abiatuta egingo den ahalegin finantzarioa; eta, horretarako, ezinbestekoa da Udalak argitara ematea non eta nola lortzen duen proiektu horiek finantzatzeko dirua.

13. GOMENDIOA: Emandako diru-laguntzak zehaztea

Erakunde, Organismo eta partikularrei emandako diru-laguntzak argitara ematea, eta argitaratze horretan zehatz adieraztea nor den jasotzailea, zergatik eta zertarako eman zaion diru-laguntza, eta zenbat diru eman zaion eta zer baldintzatan.

14. GOMENDIOA: Udalaren zor osoaren berri ematea

Udalaren zorraren gaineko informazioa ematea: zer erakunderekin daukan zorra eta zer asmoa dagoen hura amortizatzeko, zorraren neurria azaltzen duten ratio eta guzti.

15. GOMENDIOA: Derrigorreko zerbitzuen aurrekontua eta ez-derrigorrekoena bananduta aurkeztea

Sarri ere sarri, arautegiz ez dagozkien zerbitzuak eskaintzen dituzte udal erakundeek. Beraz, garrantzitsua da herritarrek zehatz-mehatz jakitea zenbatekoa den zerbitzu mota bakoitzaren kostua: derrigorrezkoena eta ez-derrigorrezkoena.

16. GOMENDIOA: Gure ratioak eta beste udal batzuen ratioak konparatuta ematea eta epe ertainean lortu beharreko helburuak zehaztea

Herritarrek errazago ulertu dezaten eskaintzen zaien informazio ekonomiko-finantzarioa, gomendatzen dugu ratio bakoitzak zer adierazten duen azaltzea eta ratio horiei zer mailatan eutsi behar zaien (zer maila litzatekeen egokia adierazleetako bakoitzarentzat).

Esandako guztia lortzeko, garrantzitsua da beste udal batzuekin alderatzea. www.sie-local.com web-gunearen bidez, gure udalaren adierazleen ratio horiek beste udal batzuetakoekin alderatu ditzakegu.

A. ADIERAZLE FINANTZARIOAK ETA ONDAREARI BURUZKOAK

Zorpetzea biztanleko	Pasibo galdagarria Biztanle kopurua
Berehalako likidezia	Funts likidoa Ordaintzeko dauden obligazioak
Kaudimena epe laburrera	Funts likidoa + zordunei kobratzeko dauden eskubideak (- ondainezintasunerako aurreikuspena) Ordaintzeko dauden obligazioak
Superabita/Defizita biztanleko	Aurrekontuaren emaitza zehatza Biztanle kopurua

**B. AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK:
SARRERAK ETA GASTUAK**

Presio fiskala (sarrera fiskalak biztanleko) (*)	Onartutako eskubide tributario Biztanle kopurua
Autonomia fiskala	Onartutako eskubide tributario garbiak (I.-III. kapituluak) Onartutako eskubide garbiak guztira
Gastua biztanleko	Onartutako obligazio garbiak Biztanle kopurua
Diru-sarrerak biztanleko	Onartutako eskubide garbiak Biztanle kopurua

Inbertsioa biztanleko	Onartutako obligazio garbiak (VI. eta VII. kapituluak) Biztanle kopurua
Ahalegin inbertitzailea	Onartutako obligazio garbiak (VI. eta VII. kapituluak) Onartutako obligazio garbiak guztira
Diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzio-indizea	Onartutako eskubide garbiak Sarreraren behin-betiko aurreikuspenak
Gastuen aurrekontuaren exekuzio-indizea	Onartutako eskubide garbiak Behin-betiko kredituak
Aurrezki gordinak	Onartutako eskubide (I.-V. kapituluak) – Onartutako obligazioak (I., II. eta IV. kapituluak) Eskubideak edo sarrera arruntak (I.-V. kapituluak)

C. ORDAINKETEN ETA KOBRANTZEN ADIERAZLEAK

